

KOSTUEN EGITURA

APPEDENTZIA aurrera eramateak LEZAN S.L.-k, gure enpresak, jasan behar dituen zenbait gastu dakartza. Aplikazioa gauzatzeko garrantzitsua da ditugun kostuak zehaztea, hasierako kostuak, kostu finkoak, kostu aldakorrak, eskala-ekonomiak eta hedapen-ekonomiak bereizten direla jakinda.

Hasteko, hasierako zergak ordaindu behar ditugu, gure jarduera merkatuan legezkoa izan dadin. Horien artean, LEZAN S.L. sozietate mugatua sortzeko eta merkataritza-erregistroan inskribatzeko ordaindu beharreko kantitateak daude. Ondoren, kontutan izan behar dugu zeintzuk diren kostu finkoak. Hala ere, finkoak izan arren, haien kopurua denborarekin alda daiteke. Izan ere, kuotak txikiagoak dira lehen urteetan, eta handitu egiten dira kuota finkoa lortu arte. Hala gertatzen da gizarte-segurantzaren kasuan. Horrez gain, kostu aldakorrei dagokienez, beti kopuru berdina ez izan arren, hobe litzaiguke, gutxi gorabehera, zehaztea. Hala ere, oro har, hildete batetik bestera, ez dago aldaketa handirik.

Gure proiektua aplikazio bat sortzea da. Horregatik, eskala-ekonomia konstantea da. Hau da, gure kostuak ez dira murriztuko aplikazio gehiago egin ahala. Horren ordez, ekoizpen bakarra dugu: APPEDENTZIA aplikazio bat. Gerta dakigukeena da, zenbat eta jende gehiagok aplikazioa deskargatu, orduan eta gure irabaziak handiagoak izatea edota denborarekin kostuak murriztea hasierako kostuak ordainduta daudelako, behin baino ez baitira ordaindu beharko. Baina, eskala-ekonomiei dagokienez, kostua berdina izango da (konstantea).

Bestalde, hedapen-ekonomiei dagokienez, APPEDENTZIA Google Maps aplikazioan oinarrituta dagoenez, hedapen-ekonomia globala dugula uler dezakegu. Izan ere, Euskadin edo Txinan erabiltzeak kostu bera du, Google Maps-k munduko mapa guztiak kartografiatuta baititu. Dena den, beste herrialde batzuetan zabaltzeko, gure aplikazioa hainbat hizkuntzatan egon behar da eskuragarri, eta horrek kostu bat dakar. Momentuz euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez baino ez dago erabilgarri. APPEDENTZIA-ren hizkuntza kopurua handitzea aplikazioa sortzeko eta programatzeko azpikontratatu dugun enpresaren bidez egingo dugu: COMPUTATA S.A. Enpresa honekin akordio batera iritsi gara eta aplikazioaren atal bakoitzaren kostuak jasotzen dituen aurrekontu bat eskaini digu.

Hurrengo tauletan zehatzago definitu ditugu aurreikusten ditugun kostu batzuen kopuru zehatza. Gainera, amaieran, COMPUTATA S.A.-k egindako aurrekontua jarri dugu (eman zaigun moduan aurkeztu dugu).

MOTA	HASIERAKO KOSTUAK	HASIERAKO KOSTUEN ZENBATEKOA
Merkataritza erregistroa	Izen sozialaren ziurtagiri negatiboa	16,36€
	Eratze-eskritura publikoaren inskripzioa	40€
Eratze-eskritura publikoa	Notario-ordainsariak	60€
	Bazkideen kapitala ekartzea	(1.000 € eskudirutan + 400€-ko banakako balioa duten 3 ordenagailuk + 800€-ko balioa duen motorrak)



APPEDENTZIA

MOTA	KOSTU FINKOAK	KOSTU FINKOEN ZENBATEKOA
Gizarte segurantz	Bazkideen izen ematea Gizarte Segurantzako autonomoen erregimenean	Bazkide bakoitzeko 60€/hilean lehenengo urtean
	Bazkideen soldata	Gehienez 950€/ bazkide (onura ekonomikoen arabera)
	Aplikazioaren domeinua	12€/urtean
	Google Play (aurrekontuan urte baterako dago sartuta)	Google Playn fakturatutakoaren %30
	App Store (aurrekontuan urte baterako dago sartuta)	App Storen fakturatutakoaren %30
	Mantentze-lanak	200€/urtean
	Erantzukizun zibileko aseguru	100€/hilean
	Posizionamendua interneten	150€/urtean

KOSTU ALDAKORRAK	KOSTU ALDAKORREN ZENBATEKOA
Ura	25€/hiru hilabete
Argia	20€/hilean
Publizitatea	3.700€/hilean metroan 5.000€/hilean telebistan/irratian 2.000€/hilean kaleko publizitatea

ESKALA-EKONOMIA	Konstantea (kostuak ez dira murrizten zenbat eta gehiago ekoitziz. Ekoizpena bakarra da: APPEDENTZIA aplikazio bat).
------------------------	--

HEDAPEN-EKONOMIA	Beste herrialdeetan agertzea edota beste lekuetara hedatzea	Google Maps aplikazioaren kartografia du. Beraz, ez da ordaindu behar.
	Hizkuntzak gehitzea	COMPUDATA S.A.-k egindako aurrekontuan ageri den zenbatekoa.

COMPUDATA S.A.-ren AURREKONTUA ESKURATZEKO ESTEKA	https://drive.google.com/file/d/1IAeEMerke25REQv5Qk4s70bPWdKvct6U/view?usp=sharing
--	---